

MAKILhotsak

HIKA Teatroa / OINKARI Dantza Taldea

OINKARI eta HIKA

Elkarrekin sortutako ikusgarriak

HIKA Teatroak eta OINKARI Dantza taldeak 2013an emango diote hasiera biren arteko elkarlanari.

Elkarlan honek aukera emango dio **OINKARI Dantza taldeari** dantza tradizionala ikuspegi berri batetik lantzeko. Euskal kulturaren eragile aktibo gisa berrikuntzan murgilduko da nortasuna galdu gabe eta hala, euskal dantzen ber-interpretazioak aparteko identitate zigilua erantsiko die **HIKA Teatroarekin** sortuko dituen sormen lan bakoitzari.

Urte hauetan hiru izan dira bi taldeak elkarrekin ondu dituzten lanak:

2013 ITSASOAREN EMAZTEAK

Itsasoko emazteen bizipenetan oinarritutako aretoko ikuskizuna.

2017 SAGARTU

Sagarra, fruitu debekatua dantzatzeko duen kale ikuskizuna.

2021 GAZTE

Gazteekin, gazte buruz eta gazteentzat dantzatzeko kale ikuskizuna.



Gaur,
OINKARI Dantza taldea
50 urteko ibilbidearekin,
zalantzarik gabe, Euskal
kulturaren erreferente
garbia da.

Era berean,
HIKA Teatroarentzat
dantza ezinbesteko
tresna izan da bere
sormen lan gehienetan.

Taldeko zuzendariak, **Agurtzane
Intxaurreagak**, urteak daramatza
disziplina honetan formatzen eta
dantza bere sormenetako
arkitekturaren parte egiten.

A photograph of two hands holding two wooden sticks that cross each other in the center. The sticks are light brown and have rounded ends. The hands are positioned at the bottom, with the left hand holding one stick horizontally and the right hand holding the other vertically. The background is a plain, light-colored wall.

MAKILhotsak


2026 EKOIZPEN BERRIA

Europa, eta mundua orokorrean, asaldatuta daude. Ukraniako gerrak, Palestinako genozidioak, Trump amerikar presidentearen inperialismo eroak edota Europa zeharkatzen duen migrazio krisiak ziurgabetasun sozial eta politikoa areagotu du eta gerra hotsak nonahi entzuten dira.

Hau gutxi ez, biztanleria berrarmatzea eskatzen duen eskuin muturreko ahotsak gero eta gehiago dira. Zoritxarrez, hirugarren mundu-gerra baten utopia, distopia posible bat bezala ikusten hasita gaude.

Testuinguru horretan, **ARTEA**ren ahotsa inoiz baino beharrezkoagoa delakoan gaude. Herrien arteko elkarrizketa eta elkar ulertzea lehenetsiko dituen jarrera bakezale eta antimilitaristak eraiki behar ditugu, armarik gabeko mundu batekin amets egiteak ezin duelako utopia bat izan behar. Behar du izan premiazko behar bat, gizartearen konpromisoarekin irudimen handia eskatzen duen errealitatea.

**Garaia da beraz, gure begirada bestean eta ez
bestearen aurka jartzeko.**



Sormen proiektu hau
GIZATASUNEZ
betetako mundu aske
batekin amets egiten
duen edonori
zuzenduta dago.

Ikuskizunaren hezurdura **MAKIL DANTZA** ezberdinek osatzen dute. Hasteko, Euskal Herri osoko hainbat **MAKIL-DANTZA** ikasten eta aztertzen aritu gara, bakoitzaren esanahai eta zergatiak ezagutzen. Horien artean, eta Kaluinar herriari keinu eginez, **BALLS DE BASTONS** dantza ere aukeratu dugu ikasteko eta dantzatzeko.

*Belaunaldi guztiok
amestu behar genuke
garaipen bat*



Esaten da makil-dantzen jatorria kultura neolitikoan egon litekeela. Bertsio anitzak topa daitezke Euskal Herrian, Iberiar penintsulan eta Europan zehar. Hainbat teoriek diote **borroka/guda** islatzen edo performatzen dutela. Errepikapena oinarri duten koreografiak izaten dira normalean: bi ilera marrazten dituzte espazioan, aurrez-aurre. Lau pertsona eta haien aurrean beste lau, edota sei, eta haien aurrean beste sei.

Geografikoki, dantza batetik bestera makilen luzaera aldatu egiten den arren, oso urrun dauden herrietako dantzen arteko antzekotasunak oso nabarmenak dira.

Euskal Herrian badirudi, makil motzekin dantzatzen direnak direla nagusi, baina badaude baita makil luze eta ertainekin dantzatzen direnak ere eta orokorrean denek dituzte oso estruktura antzekoak. Hori bai, batzuk inauteri garaikoak dira, alaiagoak, eta beste batzuk, militarizatuagoak, borrokarakoak.

Inauterietakoak, lurrian jotzeko ohitura dute. Folklore aditu batzuen arabera, kolpe hauek lurrarekiko emankortasun-erritoak omen dira.






Guk borrokatik emankortasunera igaro nahi dugunez, borrokaren esanahiak deseraiki eta berinterpretatu egingo ditugu **TOPAKETAZ**, **ASKATASUNAZ** eta **OSPAKIZUNAZ** hitz egiteko.

Gure makilen bataila hotsak, naturari lotutako hotsez estaliko ditugu. Gure makilek lurra landuko dute, musika sortuko dute. Eraiki egingo dute. Gure makilek elkarren artean hitz egingo dute, gerra ahotsen aurrean **ANTIMILITARISMOA** eta **INTSUMISIOA** aldarrikatzeko.



*Basoan kurika ostadarra
zuhaitzen artean kea
erre gaiztoaren hatsa dauka
gerra guztien ahalkeak
aittuko baduzu aittuizu
bestela ezetz esaizu
makilaren boza duzu eskean
bakea zabal dezazun*



DRAMATURGIAanitza



GAITEGIA

KANTUAK, TESTUAK, HOTSAK, DANTZAK, MUGIMENDUA, aurreko ikuskizunetan bezala, diziplina aniztasunaren alde egingo dugu. Gure sustraiak zeintzuk diren ahaztu gabe, abangoardiako ikuskizun garaikidea eraikiko dugu. Aldarrikapena eta poetika bisualaz gain ikusleen partaidetza ere bultzatuko duena.

Bidaia bat proposatzen du gure oroimenera, laurogeita hamargarren hamarkadako intsumisioaren garai nahasietara. Gazte askok armei ezetz esatea erabaki zuten, -armadari ez-, eta elkarrekin gerra kolpeak isilaraztea lortu zuten, mundu hobeia eraikitzeko gai izanik. Gaur, berriro, gerraren mehatxua gugana hurbiltzen ari den honetan, intsumisioarena aukera erreala da berriro **EZETZ** esateko. **GERRARI ezetz esateko.**

Era berean, makila natura da, zuhaitzetik sortutako material noblea da; bizitzaren sinboloa – bizitzaren zuhaitza – hazkundera, denbora; Makilak gure baserrietako lan tresna ere izan dira betidanik. Lurra jorratu, lurra astindu, uzta jaso makilekin egin da, eta guk ere halaxe egingo dugu **gerra hotsak isilarazteko, lurra joz udaberriari deitu.**

M a k i l l u z e a k

makil txikiak

makil ertainak

Denak izango dira balekoak giro, mugimendu eta doinu ezberdinak
sortzeko.





ESTETIKA

Ikuskizunean estetika bikoitzaren alde egin dugu.

Batetik, dantzariak **ZURI-BELTZEAN**, trajez jantzita agertuko dira, egungo mundu hotz eta modernoaren adierazgarri. Bestetik, **NATURA** bera ordezkatzeko duen pertsonaia izango dugu, natura bera existitzeko ahaleginean garai batetako ideien irudi modernoa erakutsiz.

Estetika honen gainetik **MAKILAREN**, zuraren koloreak indarra hartuko du eta zuri beltzeko fondoan makilaren dantza errazago ikusiko da.

Halan da ere, dantzarien estetika eraldatuz joango da eta gutxinaka iluntasunak argiari emango dio bidea. Zuri beltza zena koloreztatzen hasi eta ikuskizunak aurrera egin ahala, **NATURAREN KOLOREAK** bizi-bizi dantzatuko dute.



MUSIKA

GARAZI NAVAS

musikari eta sortzailea
arduratuko da soinuaren
diseinuaz eta jatorrizko
musika egiten.

Are gehiago, zuzenean
ere jotzen arituko da.

Musikari gazte hau ezaguna egin da akordeoiari soinu berriak ateratzeko erakutsi duen gaitasunagatik. Aldi berean, baina, euskal musika tradizionalen graduondoa dauka eta perkusioaren ikasketak. Abeslaria ere bada. **Ahotsa, perkutsio erritmoak eta akordeoiari hamaika doinu eta hots sortuaraziz partitura anitza eta eraldatzailea osatuko du.**

Hala ere, ikuskizunak MAKIL hotsa izango du oinarri, makil dantza bakoitzean makilen kolpeekin erritmo eta soinu ezberdinetako melodia amaigabeak sortuko baiditugu. Are gehiago, Site Specific baten ildo jarraituz, kaleak eskaintzen dituen edozein objektu edo altzari erabiliko dugu erritmo hauek sortzeko: bankuak, harri-hormak, ate zaharrak, eta abar.

Bestalde, naturaren hotsen artean, Euskal Herriko kantu ezagun batzuen bidez jendearen PARTEHARTZEA ere bultzatuko dugu. Horietako doinu ezagun bat, batez ere Bizkaian errotoa dagoena, SANTA AGEDA kantua da. **MIREN AGUR MEABE** idazleak doinu horretan idatzitako bertsoek harilkatu dituzte ikuskizunaren dantza eta eszena ezberdinak.



SORMEN Laborategia

GAZTE proiektuan garatu bezala, pieza koreografikoaren sorkuntza-prozesuaren aurretik, hausnarketa espazio bat eraiki dugu, bakoitza libre sentitu izan dena bere hausnarketak ahotsez, mugimenduz edo nahi izan duen adierazpen motarekin aitortzeko. Hasieran gaiaren tratamenduari buruzko iritziak anitzak eta ezberdinak izan dira, baina pixkanaka haien ahotsak bateratzea lortu dugu, desafinatu gabe.

Ze iritzi duzue Europak bizi duen egoera sozio-politikoaz?

Nola kokatzen duzue zuen burua?

Zein distantziatan?

Intsumisioa zer den badakizue?

Zein da zuen gerra?

Zerk astintzen zaituzte?

Zein da zuen ekintzarako gogoia?

Zein da zuen ahotsa?

Zuen bizitza taupada?

Zuen mugimendua?

Nola dantzatzen du zuen gorputzak bakarrik dagoenean?



Laborategia 2025eko ekainetik urtarrila bitartean garatu da. HIKA Teatroa-ko **Agurtzane Intxaurreagak** gidatu du laborategia LED SILHOUETTE-ko **Martxel Rodriguez** eta **Jon López**en kolaborazioarekin.

Batetik, Euskal Herriko eta estatuko makil dantzei buruzko ikerketa abiatu dute, bakoitzaren nondik norakoak ezagutu, eta koreografia ezberdinak ikasiz. Aldi berean, dantza tradizionalaz gain, mugimenduak eta dantza garaikideak bakoitzak izango du bere tarte zabala ere. Dramaturgia, dantza garaikidea, plastika, antzerki fisikoa, objektuak... Guztiak izango dira garrantzitsuak kontatu nahi den hori NOLA kontatu definitzen hasteko.

Abenduan eta urtarrilean, laborategiari amaiera emate aldera, Garazi Navas musikaria gonbidatuko dugu taldea ezagutzera eta dantzarietako soinu tailer bat ematera.



SORMEN Prozesua

Otsaila apirila bitartean **DRAMATURGIAREN HEZURDURA** zehaztea dagokigu.

Apiriletik aurrera gainontzeko **DISEINATZAILEAK** taldera batuko dira, elkarrekin sormen lana erabat jantzita, kaleratzeko moduan, utzi arte.



ESTREINALDIA EKAINAK 14
KALDEARTE, GASTEIZ

LAN Taldea

Interpreteak: OINKARI Dantza Taldea, Maialen Mairezkurrena, Eneko Gil, Agurtzane Intxaurreaga.

Zuzendaritza eta Dramaturgia: Agurtzane Intxaurreaga

Koreografia: Maialen Mariezkurrena, Eneko Gil, Led Silhouette, Agurtzane Intxaurreaga

Kanpo begirada: Hodei Arrastoa, Miren Gojenola

Jatorrizko musika eta zuzenekoa: Garazi Navas

Soinu diseinua eta kantua: Garazi Navas

Testuak: Miren Agur Meabe, Agurtzane Intxaurreaga

Jantzitegia eta eszenografiaren diseinua: Xabi Mujika eta Agurtzane Intxaurreaga

Eszenografia gauzatzea: Atx diseinu eta sorkuntza

Grafika: Hika Teatroa

Promozio bideoa: Unai Lizartza

Argazkiak: Unai Lizartza

Teknika: Iker Ugalde, Ekhi Yarza

Ekoizpen zuzendaritza: Eneko Arteaga, Agurtzane Intxaurreaga

Ekoizpen exekutiboa: Hika Teatroa

Administrazioa: Asun Etxeberria

Komunikazioa: Marina Perosanz, Gorka Etxeandia

Banaketa: Hika teatroa (Hodei Arrastoa, Nagore Martínez)





TEL: 633252200 / 656792501

hika@hikateatroa.eus · www.hikateatroa.eus